

# OME

## Osasun Mentalaren Elkartea

Osasun Mentala eta Psikiatria Komunitarioaren Elkartea

AEN - Espainiako Neuropsikiatria Elkartea /

Osasun Mentalaren Profesionalak-en baitakoa



Asociación de Salud Mental  
y Psiquiatría Comunitaria



## OME (Osasun Mentalaren Elkarte)

Osasun Mentalaren eta Psikiatria Komunitarioaren Elkarte

AEN - Espainiako Neuropsikiatria Elkarte / Osasun Mentalaren Profesionalak-en baitakoa

**Espainiako Neuropsikiatria Elkarte (AEN) / Osasun Mentalaren Profesionalak** 1924an sortu zen; Espainiako Estatuan Osasun Mentalaren Profesionalen Elkartearen arteko zaharrena da, eta Europako lehenengoetarikoa. Haren hastapenetara joan barik, ukaezina da gaixoei begirako arretaren bilakaera eta eskaintako kalitatearen eta zainketen hobekuntza ezin litezkeela ulertu azken hamarkadotan izandako partaidetza emankorra gabe.

**AEN** ondoko elkarteetako eskubide osoko bazkidea da: *WPA-World Psychiatric Association* (Psikiatriako Mundu Elkarte), *World Federation for Mental Health* (Osasun Mentalerako Mundu Elkarte), *Errehabilitazio Psikosozialeko Mundu Elkarte (WARP)*, *Mental Health Europe (MHE)* eta *European Association of Psychiatry (EPA)*, hala nola *SMES Europa* eta *UEMS-eko Psikiatria Atala*.

Ordezkaritza dauka Espezialitate Medikuen Kontseilu Nazionalean, Psikiatriako Batzorde Nazionalean kideak izanda, hala nola Psikologia Klinikoa Espezialitatearen Batzordean eta Osasun Mentaleko Erizaintzarenean. Era berean, erkidego, nazio eta nazioarteko mailako zenbait eztabaida-gunetan parte hartzen du eta ohiko harremanak ditu nazioarteko beste elkarte eta erakunde batzuekin, OME-rekin, kasu.

Egun, Lankidetzatza-hitzarmenak garatzen dira Castillo del Pino Fundazioarekin eta Eskizofreniarekin eta bestelako Psikosien Ikerketa eta Tratamendurako Fundazioarekin, hala nola, erkidego mailan, hainbat unibertsitate eta erakunderekin.

Osasun Mentalaren esparruko beste elkarte batzuekin lankidetzan aritzeari uko egin gabe, **AEN**-k bere ezaugarriak defendatzen ditu, egungo beste joera batzuek nahikoa jasotzen edo kontuan hartzen ez duten Psikiatria eta psikologia mota baten eta haren praktikaren defentsa eta sustapenari bideratuak.

Elkartearen xede nagusia Jokabidearen Zientzien, Osasun Mentalaren eta Artapen Psikiatriko eta Psikologikoaren hedapenari eta aurrerapenari laguntzea zein arlo horietako profesionalen kalitatezko garapena bultzatzea izanik, ondoko hauek ditu berezitasun nabarmenenetariko zenbait:

- a) **Independentzia.** Herri Administrazioei, alderdi politikoei, industria farmazeutikoari eta bestelako enpresa-erakundeei dagokienez.
- b) **Diziplinartekotasuna.** Osasun Mentalaren zainketan jarduten duten profesional mota oro onartuta. Hainbat Atal eta Lantalde aldi berean izanik (Haurren arloa, Psikoanalisis, Psikiatriaren Historia, Errehabilitazioa, Arreta-kalitatea, Giza Eskubideak, Neurozientzia Klinikoa, Eguneko Ospitaleak, etab.), hala nola helburu ardaztuagoak dituzten berriazko taldeak (Psikiatrak, Psikologoak, Erizaintza, Egoiliarak...).
- c) **Osasun Sistemaren ikuspegia osasun publikotik.** Eredu publiko unibertsitate, kalitatezkoa eta bidezkoa, ulertuta. Zerbitzu osagarri eta elkarren mendearen sareak osatua, interes berezia jarrita Lehen Arretak jokatzen duen paperean eta Komunitatean Errehabilitazio Psikosozialak eragiten dituen beharretan.
- d) **Praktikari lotutako irakaskuntza eta ikerkuntza.** Era berean, egungo argitalpen psikiatrikoen panorama osatzen duen argitalpen lerro bat (aldizkariak, monografiak, bildumak...) edukita.

- e) **Konpromiso soziala.** Arreta-kalitatearen hobekuntzari eta nahaste mentala duen gaixoaren eta haren familiaren defentsari dagokienez. Defendaturiko osasun arreta ereduaren eta beste erakunde batzuekin (GKE, Kaltetuen Elkarteak, Giza Eskubideen aldeko Elkarteak...) gaturiko elkarlanaren bidez.

**OME-k (Osasun Mentalaren Elkarteak), Osasun Mentalaren eta Psikiatria Komunitarioaren Elkarteak,** Euskadiko Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan bizi edo lan egiten duten **AEN**-ko bazkideak biltzen ditu (salbuesenez, Erkidego mugakideetan dauden eta horietan elkarerik ez duten **AEN**-ko bazkideek beren partaidetza eska dezakete). Berezko Gobernu Batzordea eta funtzionamendu autonomia ditu. Elkarte nazional deszentralizatu erakoa, 1986. urtean formalki eratu zenetik bere jarduerak mailak bere baliabideen eta bazkideen jardunaren emaitza dira. Azken urteotan, ahalegina bizitza asoziatibo eta profesionalen belaunaldi berriak eginkizun honetara erakartzeko interes suspertzera bideratu da. Horren emaitza dira zenbait Topaketa Zientifiko antolatu izana eta *NORTE de salud mental* aldizkariaren eta bazkideei zuzendutako *Informazio-buletinaren* argitalpena, hala nola OME-k babesturiko edo bere bazkideen partaidetzarekin gauzaturiko beste jarduerak eta argitalpen batzuk.

Eginkizun garrantzitsua dugu egiteko, eta aurre egin beharreko erronkak ere garrantzitsuak dira, beraz, ez dago sobera ahalik eta bazkide gehien laguntza ez ezik, Elkartearen helburuek motibatuta egon litezkeen profesionalen laguntza ere eskatzea.

## Onarpen Eskakizuna

OME-ko kide izateko, **AEN**-n sartzeko eskaera egin behar da. Onarpena eskaera jaso osteko **AEN**-ren lehenengo Batzarrean berretsiko da.

Urteko kuota: 100 €; %50 prestakuntza jasotzen ari diren profesionalentzat edo goi-mailako profesionalak ez direnentzat (erizaintza, gizarte-lana, gizarte-heziketa, terapeutak, etab.).

Eskubidea ematen du dohainik jasotzeko **AEN**-ren *Aldizkaria* ([www.revistaAEN.es](http://www.revistaAEN.es)), *NORTE de salud mental* aldizkaria ([www.revistanorte.es](http://www.revistanorte.es)), *omeBerriak Buletina*, **AEN**-ren zenbait liburu eta argitalpen (Historia liburuak, Koaderno Teknikoak...), hala nola Om Editorialarenak eta osasun mentaleko esku-hartzeari dagozkion gaien inguruan hainbat lantalde eta atalek landutako beste-lako dokumentuak, deskontuak Jardunaldi, Kongresu eta prestakuntza-jardueretan, deskontuak Errehabilitazio Psikosozialeko Espainiako Elkartearen Federazioaren (FEARP) jardueretan, **AEN**-ko eta OME-ko bazkideei dagozkien eskubideez gain.

Bete eta postaz, posta elektronikoz edo faxez bidali beharreko **formularioa**:

- **AEN** (Asociación Española de Neuropsiquiatría)  
Magallanes 1, Sótano 2, local 4 • 28015 Madrid  
☎ 636 72 55 99 ☎ 91 847 31 82  
E-posta: [aen@aen.es](mailto:aen@aen.es) Informazio gehiago hemen: [www.aen.es](http://www.aen.es)
- **OME** (Osasun Mentalaren Elkarteak)  
Osasun Mentalaren eta Psikiatria Komunitarioaren Elkarteak  
Araba 6, etxabea (sarrera Burgos kaletik) • 48014 Deustu/Bilbo  
E-posta: [ome@ome-aen.org](mailto:ome@ome-aen.org) Informazio gehiago hemen: [www.ome-aen.org](http://www.ome-aen.org)

## Informazio gehiago hemen:

[www.ome-aen.org](http://www.ome-aen.org)

[www.aen.es](http://www.aen.es)

[www.ome-aen.org/norte.htm](http://www.ome-aen.org/norte.htm)

[www.revistaAEN.es](http://www.revistaAEN.es)

## ONARTUA IZATEKO ESKABIDEA

..... Jaun/Andreak  
Osasun Mentalaren arloko profesionalak ..... tituludunak,  
Helbidea: .....

K.P.: ....., herrialdea ..... duenak, ..... telefono-zenbakia  
eta ..... e-posta

Lantokia/lkerketa: .....

### Zera eskatzen du:

Espainiako Neuropsikiatria Elkartearen eta OME-n (Osasun Mentalaren eta Psikiatria Komunitarioaren Elkarte) onartua izan dadin; horretarako, ondoko Kideek proposatu dute:

..... Jaun/Andreak

..... Jaun/Andreak

(Eskakizun hau Gobernu Batzordeak onartu eta Batzar Nagusiak berretsi beharko du. Argitalpenetarako harpidetza bazkide kuotaren baitan dago).

Adierazpen honen bidez eskaera egiten dut Espainiako Neuropsikiatria Elkartearen kuotaren zenbatekoa nire Kontu Korrontetik ordain dadin.

..... Banketxea/Aurrezki Kutxa

BEZEROAREN KONTU KODEA																			
ERAKUNDEA		BULEGOA				K.D.		KONTU-ZK.											
E	S																		
IBAN KODEA																			

..... (e), 20..... (e)ko ..... (a)ren ..... (e) Sinadura